



Marisol RAMIREZ | FOKU

 IKUSMIRA

LEGEAK HIL EGITEN DUENEAN

Energia pribatizatzeak zerbitzu hobe eta merkea-
goak ekarriko zituela esan ziguten adituek. Beti-
ko artaburuek, berriz, zerbitzu kaskarrago eta ga-
restiagoa izango zela. Eman lezake arrazoi
zutela, baina adituek esango digute ez dela kon-
painien errua, horiek jendartearen ongizatea bai-
no ez baitute nahi, merkatuaren gorabeheren on-
dorio baizik. Eta jendearen oinarritzko beharrak
merkatuaren gorabeheren mende daude. Konpai-
nia horien bezeroek lapurreta dela diote, baina
energia konpainiek ez dute legez kanpoko ezer
egiten. Horixe da arazoa, hain zuzen ere. Lapu-
rreta nabarmena da, baina legea beteta. Eta le-
geak herritarren askatasunaren berme omen dira.

Herri batek zenbat eta araubide txikiagoa izan, orduan eta libreagoa da. Baina arauak beharrez-
koak dira, batez ere norberaren askatasunak bestearenarekin talka ez egiteko. Batzuetan, talka
hori ez gertatzeko modurik onena da hainbatek askatasunik ez izatea, eta legeak horretarako
tresna aproposa dira.

Argindarraren prezioak hil egiten du. Hori bai, zuzenbide estatua urratu gabe. Xabier Izaga